

## C1 MAILA

### Mintzamen-proba

#### Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

- 1. ZATIA. **Gaia** garatu
- 2. ZATIA. Bat-bateko **elkarrizketa**

(5 minutu)

(5 minutu  
azterketari  
bakoitzak)

**Guztira 10 bat  
minutu**

#### Prestatzeko denbora:

**20 minutu** inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzailleek deitu arte.

#### Prestatu behar duzun gaia:

## A

### Itxurakeriak

#### Ane Urrutikoetxea



Ez dugu lotsatu behar itxurak egitea maite dugulako; naturala da ingurukoak liluratzeko sentitzen dugun beharra. Zeruan izarrak elkarren artean lehiatzen diren moduan, ingurukoei begira bizi gara, gurea baino argi indartsuagoa duenari erreparatuz. Itxurakeriak baina, baditu arriskuak; argiei denbora gehiegi begira igarotzen badugu, itsu amaitu dezakegu. Dagoeneko ez da nahikoa geure burua zuritzearekin; birziklatzen dugula edota plastiko gutxiago erabiltzen dugula esan eta telazko poltsarekin erosketak egitera joatea, itxurakeria hutsagatik, eta ondoren autoa denerako erabiltzea edota kontsumo basatia eteteko saiakerarik ez egitea. Eta berdin politikari, enpresari eta agintariekin; 'greenwashing'-a edo zuriketa berdea, hau da, erakunde batek bere jardura ingurumena errespetatuz burutzen duela zabaltzeko egiten dituen iruzurrezko ahaleginak itxurakeria hutsa dira.

Mundua pikutara doala sinestea ahoberokeria hutsa dela pentsatu dezakezu, beharbada itxurakeria ere praktikatzen duten ekologista zein pseudoekologista histerikoen propaganda soila. Baina argi izan hau: naturari bost axola zaizkio itxurakeriak, ezkertiar-eskuindar bozkatzailleen pentsatzeko moduak eta orokorrean, gizateriak egiten edo egiten ez duena. Naturak bertan jarraituko du gutako bakoitza desagertu ondoren. Guda honetan biktimak gu geu izango gara, ez beste inor. Garailerik gabeko gerra hasi dugu; berandu baino lehen amaiera emateko konpromisoa hartzeko gai izango ote gara?

*Irutxuloko hitza, 2019/09/27 (Probarako moldatua)*

**154A**

#### Gaia prestatzeko:

Zer dio testuak?

Zein ideia azpimarratuko zenuke? Zergatik?

#### Eman zure iritzia:

Zer deritzozu gai honi? Zergatik aritzen gara itxurakeriatan? Zer erakutsi nahi izaten diegu gainontzekoei? Ingurumen-kontuetan, itxurakeria asko dago ala badugu egiazko konpromisorik? Zuk nola jokutzen duzu?

**(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)**

**EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN**

